

2006/07 ikasturtean %1,6an hazi zen ikasketa ez-unibertsitarioetako ikasle kopurua

Hazkunderik handiena zentro publikoetan izan zen, %2,6

2006/07 ikasturtean ikasketa ez-unibertsitarioren batean aritutako ikasle kopurua 372.668 izan zen, aurrekoan baino %1,6 gehiago, Eustaten datuen arabera. Haietatik 341.435 ikasle araubide orokorreko ikasketetan aritu ziren; 5.389 matrikula berri egin ziren.

Azterketa xehatuz, Haur irakaskuntzan (%+4,4) eta Lehen mailan (%+3,3), azken urteetako joerari eutsiz, bilakaera positiboa da, kopuruak 84.851 eta 103.859 ikasle direlarik. Helduentzako heziketan ere matrikula gehiago egin ziren: 26.862, %4,4 gehiago. Heziketa berezian 983 ikasle aritu ziren, %1eko hazkundera.

1. taula-2006/07 ikasturtean matrikulatutako ikasleak

	2005-2006 ikasturtea			2006-2007 ikasturtea			Matrikulatutako ikasleen urte arteko Δ		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
Araubide orokorreko irakaskuntzak	336.046	175.743	160.303	341.435	180.269	161.166	1,6	2,6	0,5
Haur-hezkuntza	81.273	41.152	40.121	84.851	43.240	41.611	4,4	5,1	3,7
Lehen hezkuntza	100.497	48.611	51.886	103.859	50.629	53.230	3,3	4,2	2,6
DBH	69.479	29.596	39.883	68.898	29.912	38.986	-0,8	1,1	-2,2
Batxilergoa	30.719	16.364	14.355	30.043	16.001	14.042	-2,2	-2,2	-2,2
Erdi mailako LH	11.023	6.323	4.700	10.523	6.055	4.468	-4,5	-4,2	-4,9
Goi-mailako LH	16.345	8.021	8.324	15.416	7.587	7.829	-5,7	-5,4	-5,9
Hezkuntza berezia	973	443	530	983	451	532	1,0	1,8	0,4
Helduen Hezkuntza	25.737	25.233	504	26.862	26.394	468	4,4	4,6	-7,1
Araubide Bereziko irakaskuntzak	32.930	30.747	2.183	31.233	29.157	2.076	-5,2	-5,2	-4,9
Hizkuntzak	28.823	28.823	-	27.129	27.129	-	-5,9	-5,9	-
Musika	3.115	1.590	1.525	3.184	1.658	1.526	2,2	4,3	0,1
Arte plastikoak eta diseinua	758	273	485	689	255	434	-9,1	-6,6	-10,5
Kirola	167	-	167	110	-	110	-34,1	-	-34,1
Dantza	67	61	6	68	62	6	1,5	1,6	-
Goi Mailako Diseinua	-	-	-	53	53	-	-	-	-

Iturria: EUSTAT.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, ikasle galera izan zen; guztira 68.898 izan ziren, 2005/06an baino %0,8 gutxiago. Batxilergoan 30.043 ikasle aritu ziren, 676 gutxiago, %-2,2. Azkenik, Lan Heziketan 25.939 ikasle aritu ziren, aurreko urtean baino %5,2 gutxiago. Ikasle murrizketa horren arrazoi nagusia maila horietan aritu beharreko azken urteetako biztanleria murrizketa da.

Araubide bereziko ikasketetan ere matrikula gutxiago egin ziren; 31.233, %5,2 gutxiago. Matrikularik gehienak Hizkuntzetan egin ziren, %87, baina %5,9 jaitsiz; Musika ondoren, %2,2 haziz, eta Arte Plastikoak eta Diseinua (%-9,1). Urte honetan lehenengo aldiz irakatsi zen Euskal AEn Goi Mailako Diseinua, 53 ikaslerekin.

Lurraldeka, Araban guztira 54.677 ikasle matrikulatu ziren; Bizkaian 196.570 eta Gipuzkoan 121.421. Nabarmenezkoa da hiru lurraldeetan ikasle kopurua hazi egin dela; %1,5 Gipuzkoan eta Araban; %0,5 Bizkaian.

Hezkuntza sareko zentro pribatuen %83 itunpekoak izan ziren.

Araubide Orokorreko irakaskuntzetan, helduen heziketa aparte utzita, ikasleria ekitatiboki banatu da zentro publiko eta pribatuen artean. %50 dago, ia zehazki, bakoitzean. 2006/07 ikasturtean 153.424 aritu ziren zentro publikoetan eta 160.166 pribatuetan. Mailetako portzentajeei erreparatuz gero bada alderik. Erakunde publikoetan ikasle kopuru handienak izan zituzten mailak: haur hezkuntza (%51), Batxilergoa (%53) eta Erdi mailako lan heziketa (%57). Lehen Mailan (%51), DBHn (%57) eta Goi mailako lan heziketan (%51) portzentajeak handiagoak dira erakunde pribatuetan.

Zentro pribatuen %83 Hezkuntza Sailak itundutakoak dira, erabat edo partzialki. Itundutakoak %98 dira derrigorrezko hezkuntzan, alegia, lehen maila eta DBH. Batxilergoan %97, %93 Lan Heziketan eta %83 haur hezkuntzan.

Maila gainditutakoak ikusita bada alderik: %98 lehen mailan; %80 batxiler eta LHn.

2005/06 ikasturtean 155.762 ikaslek gainditu zuten kurtsoa irakaskuntza ez-unibertsitarioetako mailetan. Haietatik 80.596 (%51,7) emakumezkoak izan ziren.


Guztirakoa araubide orokor eta berezikoaren artean banatuz gero, gainditutakoak 142.656 eta 13.106 izan ziren; %89 eta %41.

Araubide orokorreko ikasketen artean Lehen mailan 48.822 ikaslek gainditu zuten kurtsoa, %98; DBHn 60.294k, %87; Batxilergoan 23.338k, %80; Erdi mailako lan heziketan 3.789k, %78; Goi mailako lan heziketan 6.413k, %84.

Kurtsoa gainditutako nesken portzentajea handiagoa da mutilena baino.

Araubide orokorreko ikasketetako gainditutakoen emaitzak ikusi eta badago zer komentaturik sexu eta hizkuntz ereduari begiratuz gero. Sexuari begiraturik, hezkuntza maila guztietan kurtsoa gainditutako nesken portzentajea nabarmen handiagoa da. Batez beste, nesken %91k gainditu zuen, eta mutilen %86k.

1. grafikoa.- Araubide orokorreko ikasketetan kurtsoa gainditutako ikasleak, hezkuntza mailaren eta hizkuntz ereduaren arabera 2006 (%)



Oharra: "B" eredia batxilergo eta LHN "A" indartua da.
Iturria: EUSTAT.

Hizkuntz ereduaren arabera, guztirakoaren portzentajearen (%89) gainetik B eta D ereduak izan ziren, biak %91ekin A ereduko zentroetan %82 izan ziren gainditutakoak.

Gainditutakoak hezkuntza mailetan banatuz gero, zera ikusten da, antzeko portzentajeak Lehen hezkuntzan gertatzen direla, ereduaren artean alderik ez dagoelarik. Gainerakoetan zabaldu egiten da tarteak. 2005/06 ikasturtean, DBHn eta Batxilergoan ikasle gehiagok gainditu zuten D ereduaren, B ondoren eta gero A. Erdi mailako lan heziketan B eredia nabarmendu zen, A eta gero D zetozelarik. Goi mailako lan heziketan D nagusi berriz, gero A eta gero B.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es
Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte Barcina
Tlf:+34-945-01 75 47 Faxe:+34-945-01 75 01
Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es
Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp